

VillaSoundBilbao musika arloko programa bat da, Bilboko Udalak sustatua, eta haren xedea da bakarlari eta talde gazteak sustatzea eta bultzatzea, formazioarekin eta musikaren arloko proiektioarekin lagunduz; orobat du xede publikoari egungo musika proposamenen aukera askotariko bat eskaintzea.

Programa honen esparruan, deialdi bat egiten da bakarlari eta talde gazteak hautatzeko, lau KONTZERTUTAN parte hartuko dutenak, Bilborocken, 2021eko apirilan edo/eta maiatzan. Ondoren, bakarlari/talde horien artean, MENTORING urratsera igaroko direnak hautatuko dira. Horien arteko batek, 2021ean, ITZULI bat egingo du hainbat hiritan zehar.

NORK HAR DEZAKE PARTE?

- **Taldeek eta bakarlariek**, haien proposamenak **egungo musikaren** arloan (rock, pop, metal, rap, trap eta folk musiken eta musika elektronikoaren edota egile musikaren arloan) edo haien fusioetan kokatzen badira.
- Talde edo bakarlari horiek **Euskal Autonomia Erkidegokoak edo Nafarroakoak** izan behar dute, eta baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Jatorria: taldeko kideen erdiek, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko eta/edo Nafarroako herriren batean izan behar dute bizilekua.
 - Adina: taldeko kideak 1990eko urtarrilaren 1a eta 2004ko abenduaren 31 bitartean jaioak izan beharko dira. Kide bi edo gehiago dituzten taldeetan, onartuko da kide bakar bat 1985eko urtarrilaren 1a eta 1989 abenduaren 31 bitartean jaioa izatea.
 - Errepertorioa: programara aurkeztuko diren konposizioak jatorrizkoak izan beharko dira. Antolatzaileek eskatuz gero, frogatu egin beharko da konposizioaren egile izatea.
 - Parte hartzaileek ezingo dute eduki kontratu diskografikorik indarrean; hala ere, ez da izango baztertzeko arrazoia lankidetzatza, autoprodukzio edo lizentzia kontratu bat edukitzea indarrean.

NOIZTIK HASITA EMAN AHAL IZANGO DA IZENA?

Izena emateko epea 2020ko urriaren 1etik azaroaren 9ra bitartean izango da, biak barne.

ZELAN EMAN BEHAR DA IZENA?

Izena ematea web orrian bertan (www.bilbao.eus/bilboroc) egin behar da, inprimakia betez, eta harekin batera, honako hauek aurkeztuz:

- 3 kanta mp3, ogg edo wma formatuan.
- Argazki bat jpg, bmp edo png formatuan.

- Taldearen ibilbidea doc, docx, odt edo pdf formatuan
- Taldearen edo bakarlariaren sare sozialetako profilak (Facebook, Instagram eta abar)
- Editatu gabeko bideo baten esteka, zuzenekoah nahiz entsegukoa (taldea zuzenean jotzen, ez bideoklipa)

Izena ematean “ordezkari” moduan ageri dena taldeko kidea izan beharko da, eta Bilborockeko kontzertuan egoteko betebeharra izango du.

NOLA EGITEN DA BILBOROCK-EKO KONTZERTUETARAKO HAUTAKETA?

Musikaren arloko profesionalek osatutako epaimahai batek hautatuko ditu 12 talde edo bakarlari aurkeztutako proposamenen artean. Haiek Bilborock-en joko dute, 2021eko apirilaren 9, 16, 23 edo 30ean; egun horietan, talde gonbidatu batek joko du haietako bakoitzarekin batera. Antolatzaileek ezarriko dituzte egun eta ordu zehatzak. Emanaldi horretan (30’) joko diren konposizio guztiak taldeek edo bakarlariek sortuak izan beharko dira.

ONARTUKO AL DA KASUREN BATEAN KIDEREN BAT ORDEZTEA?

Taldeak osatzen dituzten kideak, zuzeneko emanaldia eman behar dutenak, izen emateko agirian ageri diren berberak izan beharko dira. Kide horietako bat ordeztekotan, kausa bidezko batengatik edo ezinbestegatik izan beharko da, eta antolatzaileek baimendu beharko dute. Betiere, ordezkoak ere bete egin beharko ditu oinarrietan ezarritako baldintzak.

Bakarlariaren kasuan, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

NORK PAGATUKO DITU ZUZENEKO KONTZERTUETAKO JOAN-ETORRIETAKO GASTUAK?

Talde edo bakarlari bakoitzak diru-ordain bat jasoko du joan-etorrietako gastuetarako, 180 eurokoa, Bizkaiko taldeen kasuan, eta 250 eurokoa, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako taldeen kasuan.

ETA JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK?

Zuzeneko emanaldiak izan aurretik, zuen kantak jabetza intelektualeko eskubideak defendatzen dituen entitatereen batean erregistratuta badauzkazue, jakinarazi egin beharko diozue VillaSoundBilbao jaialdiaren antolatzaileei.

NOLA EGITEN DA MENTORING FASERAKO HAUTAKETA?

Epaimahaiak eta Bilborockeko kontzertuetara joan den publikoak 6 talde edo bakarlari hautatuko ditu, eta haiek parte hartuko dute Mentoring programan.

ZERTAN DATZA MENTORING-A?

Formazio programa bat da, hautatutako taldeei atzeman zaizkien beharrezkoen egokituak; formazioa, beraz, arlo hauetakoak izan daitezke:

- Komunikazioa: banda edo bakarlarietako bakoitzarekin egoteko tarte bat, eta haren behaketa bat urrutitik, eta, orobat, taldeen sare sozialetarako edukiak produzitzeko saio bat.
- Produkzio teknikoak: hasierako bilera bat eta, gainera, estudio-jardunaldi bi, single bat grabatzeko talde edo bakarlari bakoitzaren estiloaren araberrako estudio batean, eta, gainera, konposizioen zuzeneko interpretazioa hobetzea ahalik eta gehien, ibilbide luzeko profesionalen laguntzarekin.
- Jabetza intelektuala eta eskubideen kudeaketa: hiru bilera talde edo bakarlari bakoitzarekin, jabetza intelektualeko eskubideen eta *legal & business affairs* delakoaren gaineko formazioa har dezaten, jarduera profesionalizatzearen.
- Sustapena, kontzertuak, itzuliak eta promotoreekiko harremana: bi saio banaka, beren kontzertuak eta birak antolatzeko tresnak ikasteko eta areto, promotore eta jaialdiekin harremanak izaten ikasteko.

Formazio saioak **Bilbon** izango dira, salbu eta beharrezko teknikoengatik Bizkaiko beste udalerriren batean antolatu behar badira; 2021eko **maiatza eta urria bitartean** izango dira.

Taldeen kasuan, gainera, beharrezkoa izango da gutxienez kide bat agertzea saio horietara, eta kide guztiek parte hartzea hala behar denean.

Hautatuek elkarlan-hitzarmen bat sinatuko dute Udalarekin.

NOLA EGITEN DA ITZULIRAKO HAUTAKETA?

Behin mentoring aldia amaitutakoan, epaimahaiak bat hautatuko du sei talde/bakarlariren artean, 2021ean zehar Itzuli bat egin dezan.

4 emanaldi antolatuko zaizkio Estatuko hainbat aretotan, eta, han, herri bakoitzeko talde batek ere joko du berarekin batera; 600 euro jasoko ditu joan-etorrietako gastu moduan, emanaldi bakoitzerako.

ZER SARI IRABAZ DAITEZKE?

Bilborock aretoko kontzertuetarako hautatutako hamabi talde/bakarlari hautatuek sari hauek irabaz ditzakete:

- Emanaldi bat 2021eko Aste Nagusian, Bertako Rock taldeentzako agertokian (Bizkaiko taldeentzat bakarrik*)
- Kontzertu bat Kultura Live-en areto batean, taldearen/bakarlariaren jatorrizko herrialdean, eta 400 euro dieta moduan (Aretoak berak egingo du hautaketa).
- 100 ordu Bilborock-en entsegu-lokaletan (Bizkaiko taldeentzat/bakarlariarentzat bakarrik)
- Kontzertuen audio grabazioak

Eta Mentoring faserako hautatutako 6 taldeek/bakarlariak, formazioaz gain, honako hauek irabaz ditzakete:

- Emanaldi bat Azkena Rock 2022 jaialdian, epaimahaiak hautatuko duen batentzat. Talde/bakarlari irabazlea ez bada egokia jaialdi horretarako, aztertuko da beste jaialdiren batean parte har ote dezakeen (BILBAO BBK LIVE...).
- 250 CD-ren argitalpena, epaimahaiak nabarmendutako hiru talderentzat/bakarlariarentzat.

Sari horietan aldaketak gerta daitezke Covid-19ren ondorioz.

Epaimahaiak erabaki dezake eman barik uztea sariak, edozein.

BESTE BATZUK

VillaSoundBilbao programaren antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango, baldin eta parte hartzaileek konposizioak bidaliz beste pertsona batzuen egiletza eskubideak urratzen badituzte; erreklamazioren bat egiten bada, parte hartzaileak baino ez dira erantzule izango.

Programan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailari zabalkundea egin dezan VillaSoundBilbao programan parte harturik sortu diren musika eta irudiekin nahiz kontzertuak sustatzeko aurkeztutako kanten grabazioekin, betiere merkataritzazko xederik gabe bada.

Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar izena eman duten parte hartzaileek osorik onartzea oinarriak.

Antolatzaileek berentzat gordetzen dute oinarri hauek aldatzeko eskubidea, deialdia hobeto gauzatzearren.

Oinarrietan aurreikusi ez den orotan, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere organismo eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da, ordezkio modura. Ordenantza hori 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen Bilboko Udalbatzarrak, eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen BAOn (138. zenbakia).